

# GERRAONDOAREN HISTORIA LUZEA: EUSKAL ESKOLAGINTZA

Idoia Fernández

Izenburuak berak adierazten duen bezala, gerraondoko euskal eskolagintzaren historiara hurbiltzea da gure helburua lan honetan. Azterketan frankismoan bilakatutako euskal eskolaren saioak ikuskatzen ditugu, eta eredu desberdin bi bereizten ditugu: etxe-eskola eta ikastola. Izan ere, eskola-esperientzien jatorria eta zentzua gizartearen ispiluan irakurri behar diren neurrian, 60.eko hamarkadako gizarte-gertakariak eraginda eta era berean berorien eragile den ikastolen mugimenduaz gain gerraurreko nazionalismo tradizionalarekin erabat lotuta zegoen beste eskola-ideologia antzeman daiteke E. Zipitriaren inguruan sortutako etxe-eskoletan.

Testuinguru soziopolitiko eta ekonomikoa, modernitatea, genero-analisia eta hezkuntza-ideologia dira, besteak beste, eredu bien arteko bereizketara ekarri eta definizio hau egiteko baliatu garen analisi-lerroak, beraien bitartez orrialdeotan aurkituko duzun gerraondotik honako euskal eskolagintzaren historiaren epeketa-proposamena umatu dugularik.

Euskal hezkuntza-sistema osatu beharra, erdal eskolatzeak eragindako euskararen galerarekin batera agertu zaigun datua izan da historian zehar. Denboran zenbat eta atzerago joan ahaleginak hainbat eta isolatuagoak diren arren, Anton Pascual Iturriaga (1778-1851) bezalako pentsalariengan kezkak jadanik agertuak ziren: “Oso argi ikusten zuen berak garai hartako irakas-sistemak haurrak efikazago “hezi” eta “hizkuntza handirako” trebatu baino zerbait gehiago egiten zuela: bertako hizkuntza, eta horrekin euskaldungo osoa, nahi eta nahi ez galbidera eramán”<sup>1</sup>. Eskola bidezko asimilatze-joera hau gaurdainokoa dela baieztatzea zuzena dela uste dugu, (nola interpreta, bestela, egungo eskolaren inguruko erronka) eta garai bakoitzean gizarte-egoeren argitan forma desberdinak hartu izan dituen arren, etengabea eta helburu berdinekoa izan da.

Ez da, baina, gure gaurko asmoa asimilatze- eta akulturatze-joera eta erantzuten dion hizkuntz eta kultur baieztatzearen mugimenduaren historia luzean aritzea, bai ordea gerraostetik aurrerako epeari mugatzea. Baina batzuetan epe jakin baten ikerketak prozesu historikoaren zabaltasuna eta barruko elkarharremana lainotu eta ukatzeko balizko arriskuaz ohartuta, euskal hezkuntza-sistemaren eraikuntza mendeetan zehar eta kontrajartzen diren indarren arabera irakurri behar dela azaldu nahi izan dugu<sup>2</sup>.

Gureari gagozkiolarik, gerraostean botereguneetatik datozen eskola bidezko asimilatze- eta akulturatze-politiken aurrean eratzen den euskal

eskolaren saiorik garrantzitsuena eta eraginkorra ikastola izan da. Hala ere, “ikastola” kontzeptuaren definizioaz zerbait esan beharra dagoela uste dugu. Historian zehar erabilera eta esanahi desberdinekin agertutako hitza izan denez, definizio zehatz bat ez izateak txartoulertzeak ekar ditzakeela nabaritu ahal izan dugu. Ikastola hitzaren lehenengo agerpena M. Larramendik 1745.ean argitaratutako “Diccionario trilingüe del castellano bascuence y latín” eman zen, non *icasola* hitzak “oficina de aprender” esanahiaz agertzen den. Ordutik aurrera hitza autore desberdinen izkribuetan<sup>3</sup> agertu zen, beti ere esangura anitzekin “pour designer des réalités aussi différentes que école hispanophone, école bascophone, privée, publique... Même le mot **université** est traduit indifféremment par **ikastola nagusi** ou **ikastetxe nagusi**”<sup>4</sup>. Esanguren aniztasun hau 60.eko hamarkadan sortuko zen euskal eskolaren saio berriarekin bukatuko zen, zeren ordutik aurrera *ikastola* hitza euskarazko eskola-mota konkretu bati bakarrik ezarriko baitzaio, hain zuzen ere artikulu honetan zehar definitzen eta deskribatzen saiatuko garen euskal eskolari<sup>5</sup>.

Argitasun hauek eman ondoren, definizio batera hurbilduko gara. Gure ustez, ikastola Euskal Herrian 60.eko hamarkadan, ideologiaren alorrean, nazionalismo berria eta, kulturaren alorrean, modernizatze-prozesuen eskutik sortzen den euskal eskolaren mota bat da. Noski, honek ez du esan nahi aldeztatik aurretik euskal eskolarik ez zegoenik, ezta etorkizunean beste euskal eskolarako saio desberdinak

sortuko ez direnik ere. Ikastola, euskal eskolaren eraikuntza-prozesu historikoaren urrats bat bezala hartzen dugu; zoritxarrez ez azkena, zeren helburu orokorra, alegia Euskal Herriko eskolarizazioa euskalduna izatea, ez baita bete; beraz, ez da saio definitiboa baina bai funtsezko kate maila<sup>6</sup>.

Baten batek galde dezake zergatik egiten ditugun bereizketa hauek euskal eskolaren saio desberdinen artean, batez ere guztiok jakinda bada 1960. urtea baino lehenago Elbira Zipitriaren eskola ere egon bazegoela. Eta horri erantzuteko, bereizketa hori eskola-esperientzia hauen artean ikusitako desberdintasun handiek inposatutakoa dela erantzungo genuke. Argitzeko, ikertzen ari ginela gertatutakoa bera plazaratuko genuke, zeren geuk ere abiapuntu gisa gerraostean suertatutako euskal eskolaren saio guztiak ikastolatzat hartu baikenituen. Era honetara, euskaraz egiten zen edozein eskola formaleko ahalegin, guretzat, ikastola zen. Baina Donostian 1946.etik<sup>7</sup> aurrerako E. Zipitriaren eskolaren eta 60.eko hamarkadan hedatu zirenen artean, pixkanaka amildegi handi bat zabaltzen zela ikusten hasi ginen. Antzekotasunak baino desberdintasunak ugaritzean, eskola-eredu desberdin bi ez ote ziren hipotesiaz jabetu ginen, eta ikertzen eta sakontzen hasita elkarrizketatuek<sup>8</sup> ikastola kontzeptuaren berdefinizio batera eraman gintuzten. Honela sortu zen etxe-eskolaren kontzeptua, batetik 60.eko hamarkadan jaioko zen ikastolarekin zenbait momentutan estu lotuta egon zen eskola-saioa, baina bestalde, gerraurreko nazionalismoarekin eta

eskola-ideologia eta praktikekin zerikusi handiagoa zuen ahalegina. Izan ere, euskal eskolaren saio bakoitza sortu den gizarte-egoera konkretu batzuen argitan irakurri behar badugu, etxe-eskola gerraostean birsortutako baina gerraurrean emandako gizarte-egoeren hezkuntza-ideologiari dagokiola esango genuke, ikastola 60.eko hamarkadan Euskal Herrian suertatzen diren gizarte-egoera berriei dagokien bitartean.

---

### **Donostiako etxe-eskolak, gerraurreko euskal eskolaren adierazpen ahuldua**

---

Gai honetaz hitz egitean, Donostiako etxe-eskolak gerraostean sortzen den euskal eskolaren adierazpenik goiztiarrena (1946.etik aurrerakoa) izan zela eta era fokalizatu eta isolatu batez eman zela azpimarratu behar dugu. Gerra bukatu eta 1957.ean Bilboko ikastola<sup>9</sup> martxan jarri arte, Euskal Herri osoan ez da hezkuntza formaleko beste esperientziarik agertzen Donostiako etxe-eskolak besterik. Badira alfabetatze ez-formaleko saioak (euskal katekesiak, euskarazko klaseak, edota euskal maistrek eskola estataletan burutzen zituzten praktika elebidunak), baina ez dira eskolak zentzu hertsian.

Etxe-eskolaren agerpenaren arrazoiak ulertzeko, bere muina izan zen E. Zipitriaren eragina ulertu behar dugu, baita haren azpiegitura izan ziren Emakume Abertzale Batzako emakume-sareak ere. E. Zipitria (1906-1983) gerraurreko gizarte-konfigurazioarekin zerikusi handia zuen emakumea izan zen. Maisutza-

-ikasketak egin eta Muñoaren ikastetxean hamar urtez egon zen lanean (1926-1936), pedagogiaren orduko berrikuntzekin harreman zuzenak izan zituelarik. Honetaz aparte, “Euskaltzaleak” erakundeko kide, Argia aldizkariko kolaboratzaile eta Emakume Abertzale Batzako militante garrantzitsu gisa agertzen zaigu, orduko emakume hizlarien zerrenda osatzen duenetako bat izan zelarik<sup>10</sup>. Beraz, E. Zipitria gerraurreko euskal nazionalismoaren giroan erabat murgilduta zegoela esatea ez zaigu gehiegikeria iruditzen.

Baina hau esatea ez da argi-garriegia, baldin eta giro nazionalista hauen ezaugarriak zeintzu diren ez badugu aztertzen. Nazionalismo tradizionala mende-hasieran industrializazio-prozesu azkar eta bortitzen aurreko erreakzio gisa interpretatua izan da. Politikoki sortarazi zituen adierazpen desberdinenez gain, ideologikoki gizartearen irudikapen nekazal giroko eta erromantikoarekin loturik agertzen zaigu. Pentsamendu tradizionala eta 1960. urtean iraungo zuen erruralismoan zetzan nekazal gizartearen apologia erromantikoaren adierazlerik nagusienetakoa Orixe izan daiteke, “Euskaldunak” lanean isladatuta gelditzen zaigunez. P. Iztuetak, Orixeri buruz argitaratu berri duen lanean, Txomin Agirrerren “Garoa” nobela komentatzen digu ideologia tradizionalaren esanguran sakonduz: “euskal literaturan isladatzen den ikuspegi hori bi gizarte-mota kontrajarrien arteko gatazka ideologikoa besterik ez da. Orixe, bere belaunaldiko gehienak bezala, euskaltzaleen artean nagusi zen nekazal pentsamenduan lerrokatuko

da. Ibai, haran, mendi eta ohian berde eta garbien edertasuna eta baserritar nahiz arrantzale xumeen bizitza sotila, gizarte idealaren sinbolo gisa, kantatzeari ez deritzot hain anormala. Bi arrazoi hauengatik, batez ere: a) industrializazioaren fenomenoak, beronen sorreran bederen, euskararik gabeko zonalde batean eman zelako eta, gainera, euskal kulturari erabat arrotz zitzaion langileri multzo handi batez hornitua zegoelako; b) ez bakarrik ingurune fisikoan, baita gizarte tradizionalan ere sekulako zirrakoa eragin zuelako”<sup>11</sup>.

Gerraurreko nazionalismoa zeharkatzen duen munduaren ikuspegi tradizional honek hezkuntza-ideologian ere badu eragin nabaria: erlijiotasunaren pisua, familiari ematen zaion garrantzia, natura eta baserri inguruko adierazpenek osatzen duten ardatza. Ikasedukiei gagozkielarik, orduko kurrikulumean helarazitako mezuen adibide adierazgarri bat “Xabiartxo” liburuan aurki daiteke. Ixaka Lopez-Mendizabalek<sup>12</sup> 1923. urtean idatzitako irakurliburu honetatik ondoko ezaugarri batzuk taularatu nahi genituzke:

a) Lehenengo irakurgaiak “Jaungoikoa” izena duena da, eta bertan liburu osoaren hezurrean joango den ideia agertzen zaigu jadanik: “Berak egin gaitu gu ere. Onak izan gaitzen”. Idei honetatik, hain zuzen, bideratuko da Xabiartxo eta Iziartxo bezalako ume zintzoen jokabide zuzena (egun onak eman, gurasoak maite, haserretu ez, gezurrik esan ez, ikasteko gogoak, alferra ez izan, elizan eta ikastolan istilurik gabe egon....).

b) Familiaren garrantzia azpimarrazten da, seme-alabek aita-amekiko (kasu honetan aita-ama “zeruko” aita-amarenganaino ere zabaltzen delarik) eginkizunei garrantzi handia ematen zaielarik.

d) Naturarekin oso lotuta dauden irakaspenak agertzen zaizkigu orrialde-etan zehar (Mendiak, Zuaiza, Kabiak, Enara, Erleak, Abereen karaxi eta otsak, Lorea, Txori gaxoa...).

e) Nekazal giroaren aipamena, bai edukien bitartez baita irudien bitartez ere: Baserria, Artzaya eta ardiak, Etxeko abere ta piztiak, Bi goldeak, Sugea eta nekazaria, Aizkora eta kirtena, Alkartasuna indarra da.

Baina gerraurreko euskal eskoletan eta gerraosteko Donostiako etxe-eskoletan hain zabalkunde handia izan zuen “Xabiartxo” irakurliburua ez da, gure aburuz, orduko euskal hezkuntzaren ideologiaren edukiei buruzko adibide bat baino. Parametro hauetatik “irakasten” zen errealitatea, edo hobeto esanda, errealitatea irakurtzen irakasten zen, baina badago heziketa-munduan gizarte tradizionalari dagokion beste ezaugarria, alegia, hezkuntza emakume-lana izatearen kontzeptzioa. “Xabiartxo” liburuan sinpleki esaten zaigunez: “Amak bere umetxoak jantzi eta garbitu ditu. Aita bere lanetarako etxetik irten da. Guziak, batetik bestera, beren egin-kizunetara dijoaz”<sup>13</sup>.

Orain arte, nazionalismo tradizionalaren ikusmira eskola-edukietan isladatzen zela ikusi ahal izan dugu, nonbait ideologia nagusiaren errura-

lismo hori eskoletan ere sartzen eta birsortzen zela, baina honek ezer gutxi esplikatzen digu etxe-eskolari buruz. Azterketan sakontzeko, heziketa eta eskolaren sostengua zirenen egileengaino jo behar dugu, eta bide honetatik abiatuta emakumearen gaia aurkitzen dugu ezinbestekoz. Nazionalismo tradizionalaren teorizazioan emakumea amaren irudiekin lotuta agertzen zaigu (Ama, Ama Birjina, Ama Aberria eta Ama Lurra), eta beste maila batean arrazaren gordelekua eta hizkuntza eta kulturaren igoera<sup>14</sup>. Gerraurrean, emakume nazionalistak nagusiki EAB (Emakume Abertzale Batza) izeneko erakundean antolatuko dira, baina funtsean famili mailan zeuzkaten funtzio berdinak burutzeko: “En EAB se da una transposición a la vida social de los fines y roles asignados a la mujer en la familia”<sup>15</sup>. EABrekin, emakume-amari tradizionalki ezarri zaion familia naturalaren esparru txikia esparru handi batera, familia handira, zabaldu egiten dela esango genuke, orokorrean *luzapen-efektua* agertzen zaigularik (familia txikia eta bere luzapena den komunitate nazionalista; amaren igoera-funtzioa eta bere luzapena den andereño-funtzioa... etab.).

Teresa del Vallek eta bere taldeak euskal emakumeek nazionalismoaren praxian jokaturako papera aztertzerakoan, gure gaiaren datu esplika-garriak argitzen dituzte. Batetik, espazioei dagokienez emakumeek okupatu izan duten espazioa etxearena izan da, beraz esparru pribatua, afektiboa; emakumeak antolatu zirenez geroztik, etxearen espazioa “luzatu” egiten da emakume guztien etxetara:

“En el primer nacionalismo la mujer ocupará aquellos espacios que tradicionalmente se le han atribuído. Sus actividades se centran en el espacio de la casa, prolongado socialmente (...). Las mujeres podían introducirse fácilmente en las casas de otras mujeres, ya que hay un espacio, *la casa*, que les es común, que comparten y en el que se sienten seguras”, eta laburbiltzen dute “El ámbito nacionalista es una gran familia y la mujer ocupa en ella el espacio de la madre o de la hermana. En este espacio de lo privado, de la casa, la cocina ocupa un lugar primordial”<sup>16</sup>.

Lan honek ematen digun bigarren datu interesgarria emakumearen partaidetzak prozesu etnikoan izandako garrantzia da. Bi hausnarketa eskuratzen digute egileek; batetik emakumeek politikotzat eta baskotzat jotzen dutenaren arteko bereizketa (“las mujeres establecen una diferenciación entre lo que es sentido como político y lo que es sentido como vasco”), eta, bestetik, sozializazio-prozesuetan emakumeek garatutako lana: “Dos aspectos merecen reseñarse, a saber: la transmisión de la lengua, y la transmisión de los valores considerados vascos en la socialización de los niños, o lo que es lo mismo, la transmisión de la conciencia nacional”<sup>17</sup>. Aipatutako umeen sozializazio hauek prozesu hezitzaileak direla esan beharra dago, bai lehenengo sozializazioa familiaren barruko forma gabeko heziketan gauzatutakoa, baita bigarren sozializazioa esparru familiarraren luzapena den euskal eskoletan eta hezkuntza ez-formaleko ihardueretan gauzatutakoa ere.

Familia eta etxea, eta beroien luzapenak diren espazio pribatu baina konpartituen artean ematen den harreman estua oso barneratuta dago nazionalismo tradizionalan. Biziki adierazgarriak iruditzen zaizkigu 1923.ean Euskal Esnalea aldizkarian agertutako hitz hauek: “Euskal ikastolak... Bai, bear-bearrekoak dira euskal ikastolak, ume-eskolak batez ere; euskera indartu, txukundu eta zabaltzeko bide egoki ta oberenerik ez. Baña... bide au ez degu beti geure eskuan, eta iñoren onetik bear duana... Bada orratio eskola bat iñork kendu ezin ligukena, beti geure eskuan deguna, eskolarik onen-onena: etxe-eskola. Auxe ez kapeladunak ez izkiludunak itxiki ez digun eskola da. Emen ez dago zentzorerik ere. Eta au gabe beste eskola guztiak alperrak, edo or nunbait”<sup>18</sup>. Hitz hauetan “eskola” eginbeharra espazio pribatuan, emakumeen espazioan, hau da, etxean betetzen da. Baten batek pentsa dezake amaren lanaz soilik ari dela hitz egiten, agian bai, baina gure ustez badaude adibideak non etxearen espazioan hezkuntza formalagoaren saioak egiten diren. Adibide bi jarriko ditut; batetik Donostian kokaturik zegoen Elena Gametxo Goikoetxearen eskola dugu, non maistra-tituludun batek bere etxean eskola jartzen duen<sup>19</sup> (beraz, etxearen espazioan bederatzi urtera arteko umeentzako eskola); eta, bestetik, historian zehar eta giro nazionalistetan ere agertu zaigun “institutz”aren irudia, nonbait familia baten barruan seme-alaben heziketaz arduratzen zen emakume irakaslea (berriro, etxea eta eskola)<sup>20</sup>.

E. Botten<sup>21</sup> familiaren barruko azterketak ematen dizkigun argibideei esker, eta, gerraurreko emakume nazionalisten mobilizazioak adierazten digunari jarraiki, emakumeak talde diferentziatu bezala belaunaldi berrien sozializazioaren arduradun agertzen zaizkigu. Familia barruko zein eskolari dagokion bigarren sozializazio-prozesu hauek aurrera eramateko, emakumeak, oro har Emakume Abertzale Batza<sup>22</sup> dela medio, estrategia desberdinez (euskal eskolak, dantza-taldeak, euskarazko klaseak, poxpolinak...) eta antolamendu-mota zehatzez (emakume-sareak) baliatu ziren, belaunaldi berriei ideologia nazionalista helaraziz. Lan guzti hauek familia “txikiaren” zein “handiaren” espazio pribatuetan (hurbilak, afektiboak, konpartituak...) burutu ziren, gizonei zegokien espazio publikotik erabat bereizturik: “Esta separación de espacios se refleja también a un nivel físico. En EAB las mujeres tenían sus propios locales separados de los batzokiak oficiales. El paralelismo privado-público en esta relación es claro. Son los hombres, los miembros del PNV, los que ocupan el espacio de la política, el espacio público por excelencia. Las mujeres ocupan el espacio privado, no tienen acceso a la palestra política; su espacio es el de la trastienda, la organización de lo más inmediato, de lo infraestructural, de lo necesario”<sup>23</sup>. Beraz, laburpen gisa hauxe esango genuke: emakume nazionalista, gerra hasi orduko, emakume bezala dagokion amaren ideologiaz, funtzio kontserbatzaile eta hezitzaileaz eta espazio pribatuaz hornituta agertzen zaigula, kolektibo diferentziatu gisa mobilizazio, zabalkunde- eta antolatze-maila altuak eskuratu zituztelarik.

Baina dinamika hau gerrak moztuta suertatu zen. Zer gertatzen da orduan? Zein esangura du honek emakume nazionalistentzat? Argi dago nazionalistentzat espazio publikoa (politikoa) erabat itxita suertatu zela, baina zer gertatzen da espazio pribatuan, hau da, emakumeen espazioan? Zertan gelditzen dira espazio pribatuan eraikitako emakume-sareak? Eta bete behar zituzten funtzioak? Argi dago generoaren ikuspegia erabiliz ezer gutxi ikertu dela, are gutxiago gerraren esanguraz eta ondorioez. Baina ditugun datuak erabilia hurbiltze-ahalegin batzuk egin genitzake.

Gerra, euskal emakume zein gizonentzat, esperientzia guztiz traumatikoa izan zela ukatzerik ez dago. Hala ere, gerra gertakari politiko-militarra da, espazio publikoari dagokiona, nazionalismo tradizionallean gizonezkoei zegokien espazioaren gertakari bortitza; noski, espazio pribatuan ere eragin zuena baina funtsean espazio publikoari zehatz-mehatz zegokion. Joseba Zulaikak bere tesian honela dio: “La figura del padre tiene, también, su proyección política. Decir que “el padre” perdió la guerra contra Franco es una expresión corriente”<sup>24</sup>. Paulo Iztuetak, bestetik, J.M. Leizaolarekin izandako elkarrizketa batean honelako pasarteak ekartzen digu: “Eta han, galdera hau egin zioten J.M. Leizaolari (Iñaki Azpiatzuk eta Maritxu Barriolak): “*Guk orain zer egin behar dugu?*”. Eta J.M. Leizaolak erantzun: “*Hara, guk gizonok galdu egin dugu borrokaldia. Zuek, emakumeok eta apaizok jaso behar duzue herria. Konfesioak, mezak, haurrak, euskara,*



*elizkizunak direla eta, zuen esku dago herria*"<sup>25</sup>. Hitzok benetan gardenak iruditzen zaizkigu; alde batetik gerraren zama, ekintza politikoa zen neurrian, gizonezkoengan argiro ezartzen baita, eta bestetik, emakume eta "apaizei" dagokien espazio pribatuak gerraoste horretan egin beharrekoaz hitz egiten baitigu.

A. Elorza historiagileak ere emakumeen gerraoste honetarako informazio gehiago gaineratzen digu. Izan ere, emakumeek gerran jasan zuten errepresioa diferentziala izan zen (emakume fusilatu bakarria ezagutzen omen da, besteek jasandako errepresioa gartzela, desterru, irain eta isunetan zetzalarik), eta ondorio zuena EABren antolamendu publikoa desagertzea izan arren, ez zen nahikoa izan errepresariatutako emakumeen ideologia desagiteko<sup>26</sup>. Honetaz aparte, emakumeen ihardueraren izaera ez hain politikoak (hizkuntz eta kulturaren igorketa, erlijiotasun eta abertzaletasunean oinarritutako heziketa-lanak...) eta espazio pribatuan zuen kokapenak gerraostean ere mantentzeko oinarriak erraztu zituen<sup>27</sup>.

Gure ustez, generoaren testuinguru honetan txertatzen da E. Zipitriaren eskola-esperientzia, azken batez bere atzean izkututzen dena emakume sare bat izan baitzen. A. Elorzak gai honetaz hipotesi bat luzatzen digu: "Nuestra hipótesis, ciertamente por contrastar, es que la actuación de la mujer nacionalista en la formación de las nuevas generaciones, con el concurso de su politización anterior a la guerra, constituye uno de los factores principales a la hora de

explicar las formas de resurgimiento nacionalista en Euskal Herria en la década de los cincuenta"<sup>28</sup>.

Gure ikerketan, E. Zipitriaren lana eta Donostian, 60.eko hamarkadako ikastolen-mugimendua baino lehenago, eratu ziren etxe-eskolak nazionalismo tradizionalaren barrena gerraurrean eratu zen emakume-mobilizazioaren berragerpena direla frogatu ahal izan dugu. Berragerpen honetan gauzatzen den eredia, euskal hezkuntzaren ideologiaren ikuspegitik, ahulduz doan eredia dela azpimarratu behar dugu, famili ideologiaren ikusmoldetik aldentzen hasi zen ikastola-eredua hedakorra bihurtu zen neurrian. Oro har, etxe-eskolaren ezaugarriez ondoko oharrak aipatu nahi genituzke:

- Batetik, Donostian gerraostean eratzen hasten diren euskal eskola-txoetan (etxe-eskoletan) EABren eta giro nazionalistetako emakume-sareak<sup>29</sup> berragertzen dira, gerraurrean bezalaxe funtzio hezitzailea betetzeko helburuaz. Eskola-saio honen kokagunea "etxea" da, espazio pribatua, afektiboa, emakumeena, nahiz eta bertan emango den irakaspenera formala izan. Bitxia iruditzen zaigu Teresa del Vallek emakume nazionalisten espazioen ikerketan luzatzen digun hausnarketa hau: "La transmisión de la lengua se ha considerado también como una consecuencia directa de su rol de madre. La frase de que las *ikastolak* tienen su nacimiento en la cocina, es una realidad. Quizás el primer embrión de las futuras *ikastolak*, fueran las clases de euskara que las mujeres de EAB organizaron para los niños en el local



de “Emakume”. Posteriormente en el franquismo se organizan las primeras *ikastolak* clandestinas en las cocinas de algunas casas. La responsabilidad de esas primeras ikastolak estaban en manos de las mujeres”<sup>30</sup>.

- Etxe-eskola hauen iturria gerraurrean kokatu behar dugula, bai ideologikoki (famiaren ideologia eta, hizkuntzaren ikuspegitik, kontserbatze-funtzioa), bai antolamenduz (etxe-eskola moduko antolamendua gerraurrean ere bazegoen), baita pedagogikoki ere.

- Pedagogiaren ikuspegitik zerbait gehiago gaineratu nahi genuke. Gerraurrean European eta Estatu Espainolean sortzen den Eskola Berriaren proposamenekin lotu behar dugu etxe-eskoletako praktika pedagogikoa. Hezkuntzaren soziologiatik, gizarte kapitalista modernoari egoikiago erantzuten dion Eskola Berriaren korronteak eragin handia izan zuen gerraurreko euskal eskolaren saioetan, eta bai teorikoki zein metodologikoki pedagogia tradizionalaren magistro-zentrismoari aurre egiten dio. Metodologia ekintzaileen garapena oso maila altutara heldu zen Estatu Espainolean “Institución Libre de Enseñanza” delakoa bere gailurra izaki, eta Katalunian eta Euskal Herrian berriena zein Montessori eta Decrolyren eraginak asko zabaldu zirelarik.

Hau kontutan hartuta, ez da harrizkoa gerraurreko euskal eskolen inguruan eginiko bi proposamen kurrikularretan, Landetarena Bizkaiko auzo-eskoletarako eta Villalongarena Euzko Ikastola Batzarako<sup>31</sup>, pedagogia

ekintzaileen aztarnak aurkitzea, nahiz eta eskolak nazioaren eraikuntzan jokatu beharreko ikuspegitik kontrajarriak diren eredu autonomista eta independentistari erantzun. Kurrikulumaren ikuspegitik gainera, EIBren proposamen eta E. Zipitriak etxe-eskoletan ezarritakoaren artean antzekotasun handiak, harrigarriak esango genuke, azaltzen dira.

Hala ere, Donostiako etxe-eskolen esperientziaren tamaina eta mugak oso nabariak zirela, eta emakume-sare baten parametroetan irakurri behar direla ez dugu ahortzi behar. Ideia zehatza egiteko esan dezagun E. Zipitria 1946.ean hasi zenetik 1960.erarte zortzi bat etxe-eskolak funtzionatu zutela: E. Zipitria (1946), M<sup>a</sup> Dolores Goia (1951)<sup>32</sup>, Jone Forkada (1952), Karmele Esnal (1953), M.K. Lasarte eta M.K. Mitxelena (1957) sei-bederatzi urte bitarteko umeekin, eta, Itziar Artzelus (1950) eta Faustina Karril (1953) lau eta sei urte bitarteko umeekin<sup>33</sup>.

Gure ustez, etxe-eskolen ekarpena funtsean 60.eko hamarkadan jaioko zen euskal eskola berriari eman zion hornidura teoriko pedagogikoa izan zen, nolabait prozesu historikoaren esperientzien arteko komunikazioa ahalbideratuz. Jaioko ziren ikastolek etxe-eskoletan zein gerraurreko euskal eskoletan zeuden ezaugarriak eskuratuko dituzte, batez ere estrategia metodologiko eta didaktikoak, baina hezkuntza-ideologia, hizkuntzaren inguruko diskurtsoa zein antolamendua eta funtzionamendu-motak erabat berriturik agertuko zaizkigu, gizarte-aldaketa sakonen testuinguru

globalago batez. Honela txandaketa ematen hasi zen, gerraurreko gizarte-egoeraren oinarrian eraikitako eta gerraondoren espazio pribatuaren moldaketaren eraginez birsortutako etxe-eskola ahultzen doan eredu zelarik.

---

### **Ikastolen Mugimendua: euskal eskolaren eredu hedakorra**

---

1960 urte muga bezala hartzen dugu euskal hezkuntzaren historian. Momentu honetatik aurrera Gipuzkoako eta Bizkaiko herrietan zehar ikastolak eratzen hasi ziren: Pasaia, Errenderia, Irun, Hernani, Elgoibar, Algorta, Lazkao... 1957.etik Bilboko ikastola ari zen lanean (zailtasun handiz poliziak itxi baitzuen) eta berehalaxe gehituko zaie Iruñea (1964)<sup>34</sup> eta Gasteizko esperientzia (1964). Baina ikastolak diogu, ez etxe-eskolak. Zer gertatu den galdetu beharra dugu, dudarik gabe. Gure ustez, oso aldaketa handiak daude hastapen hauetan bertantxe, bai gizartearen ikuspegitik baita hezkuntza-ideologiatik ere.

Batetik, ikastola hauetako sortzaile eta partaideek, honez gero, ez dituzte gerraurrea eta gerra ezagutu, beste belaunaldi batekoak dira eta jaio direnetik murgilduta egon diren gizartea ez da inondik inora euren gurasoena. Aldaketa asko suertatzen ari da munduan eta Euskal Herrian. Gaietik aipaturik, maila desberdineko eraldakuntzak soma ditzakegu. a) Europa mailako aldaketak, besteak beste, Marshall plana eta abiada ekonomikoa, eskolaratzearen booma,

Elizaren Kontzilio Batikano II.a, ezker mugimenduen gorakada eta emakumearen askapen-mugimenduak. b) Estatu Espainolean. Abiada ekonomikoa eta autarkiatik teknokra-ziarako igarotzea; eskola-sistema eguneratu eta tinkotu beharra. d) Euskal Herrian. Aldagai soziopolitikoaren aldetik, nazionalismo berriaren sorrera, EKIN eta ETAREN eskutik; eta aldagai kulturalenetik, kultur erresistentziaren antolamendua, hizkuntzaren berreskurapen-prozesuaren sustapena eta modernotzea, eta euskal apaizgoaren mobilizazioa eta geroagoko sekularitze-prozesuak<sup>35</sup>.

Bestetik, ikastoletako sortzaile hauek gurasoak dira, ez emakumeak. Datu sinple honetan aldaketa handia izkutatzen dela uste dugu. Euskal eskolagintzaren muinean zetzan nazionalismo tradizionalak heziketaren ardura emakumeengan zehaztu bazuen ere, 60.eko hamarkadatik aurrera gurasoak (emakume zein gizonak) dira erantzuleak. Ordura arteko emakume-sare hezitzaileak mistotzen direla esango genuke, gurasoen sareak agertuz.

Aldaketa hau nola eman den esplikatzen bi aldagai hartu behar dira kontutan. Alde batetik, Europako abiada ekonomikoarekin batera hezkuntza-sistemak hartzen duen garrantzia, eskolatzea status eta arrakasta soziala eta ekonomikoaren esanguraz jazen hasi zelarik. Momentu honetatik aurrera, banakakoentzat, ez-alfabetatu edo ez-eskolatua izatea gero eta zamatsuago bihurtuko zen, dudarik gabe. Bestaldetik, gerrak eragindako euskal gizonezkoen espazio pribatura-

ko derrigorrezko errepliegeak familia-  
ren egituraketan eta funtzio-banaketan  
nolako eragina izan zuen ezin dugu  
jakin, baina, maila orokorrean  
hezkuntzak hartzen duen esanahi  
sozioekonomikoa ikusita, eta, Euskal  
Herri mailan espazio pribatutik  
publikora igarotzeko modu bakarra  
kulturgintzatik pasatzen zen heinean,  
ez zaigu hain harrigarria iruditzen  
gizonezkoak ikastolagintzan buru-  
-belarri sartzea. Eskolagintza sozialki  
zenbat eta funtsezkoago eta bote-  
rearekin lotuago egon, bere jatorrizko  
espazio pribatutik, eta ondorioz  
emakume-lana izatetik, urrunago  
agertzen zaigu. Baina Euskal Herriaren  
kasuan badago mistotze-prozesurako  
arrazoi espezifikoa, alegia,  
eskolagintzaren instituzionaltze-joera  
orokorraren txanpak, hizkuntza eta  
kultura bezalako osagai “ez hain  
politikotan” oinarritzen zen heinean,  
gerraostean euskal esparru publikoa  
irekitzen hasteko baliogarri bihurtzen  
hasi zela, nolabait ordura arte  
“erretaguardiaren” lana zenak  
naziogintzarako funtsezko bilakatuz<sup>36</sup>.

Hirugarren ezaugarria ere azpima-  
rratu nahiko genuke, alegia, ikastolek  
bere hastapenetatik agertutako  
hedakortasuna. Eta hedakortasuna  
esatean, ez gara gizartean egon zen edo  
egin zitekeen harmenaz soilik  
mintzatzen, ikastoletako partaideek  
proiektua zabaltzeko izan zituzten  
idea, asmo eta ekintza konkretuez  
baizik. Ikastoletako partaideengan  
ikusten den indar zentripetoa aski  
isladatzen da, besteak beste, elkarren  
arteko koordinaketa goiztiarrean  
(1963.etik aurrera)<sup>37</sup>, andereño-  
-tituludunen ezean andereño enpiri-

koen inguruko fenomenoan, ikastole-  
tako ikasleek herriz herri egiten  
zituzten erakustaldietan... eta oro har,  
ikastoletan sortzen eta birsortzen diren  
mugikortasun eta mobilizazioan.

Hastapenetan agertzen zaizkigun  
desberditasun hauek denboran zehar  
ugaritu egin ziren, ikastolak urratsez  
urrats eta zentru bakoitzak zituen  
berezitasunen arabera modernatze eta  
hiritartzearen bidetik abiatzen  
zirelarik. Ikuspuntu teoriko batetik  
Rikardo Arregiren gai honi buruzko  
izkribuak aski adierazgarriak iruditzen  
zaizkigu, besteak beste, “Euskal-  
tzaleen Jainkoa hil behar dugu” artiku-  
lu famatuan non euskal izaera nekaza-  
ritzan edo igarotako garaietan zegoela  
uste izateak industrialdutako gizarteko  
kideak diren gazteentzat sentidurik ez  
zuela argudiatzen den<sup>38</sup>.

Gauzak honela eta ikastolen  
mugimenduaren eraketari dagokionez,  
Donostian eratutako etxe-eskolak  
lehenen, eta herrietan zabaltzen joan  
ziren ikastolak geroago izan ziren,  
inongo dudarik gabe, ikastola berriak  
sortzeko ezinbesteko erreferenteak,  
zeinen bitartez antolatzaileek eredia,  
informazioa eta laguntasuna eskura-  
tzen baitzituzten. Ezagupideak eta  
erreferentziek garrantzia bazuten, zer  
esanik ez herri asko eta askotan erata  
zeuden alfabetatze ez-formaleko  
saiok (euskal katekesiek, *Umeen Deia*  
bezalako ekinbideek, umeentzako  
euskarazko lehiaketek edo euska-  
razko klaseek) eta euskal kulturaren  
inguruko saiok (euskal dantzek,  
musikak, mendi-taldeen, antzerkiak...)  
Elkarriketetan zehar, hasiera  
hauetan herrietan zeuden horrelako

elkarguneak, partaideak biltzeko eta elkar ezagutzeko baliogarriak izan zirela ikusi ahal izan dugu. Oro har, martxan jartzeko mekanismoak komunikazio-sareekin eta ahoz ahoko zabalbideekin lotuta egon zirela gaineratu behar dugu, sarri askotan aurrekari gisa euskara eta euskal kultura bultzatzeko ekintzak egon zirelarik<sup>39</sup>. Halere, ikastolak alde zuzeneko inongo planifikaziorik ez zela egon eta herri bakoitzean erabat autonomoki sortutako eskolak izan zirela azpimarratu behar dugu, nahiz eta behin eratu ondoren euren arteko harremana eta koordinaketa berehalaxe gauzatuko ziren.

Gauzak horrela, funtzionamendu amankomun eta deszentralizatu batez hitz egin genezake, non motibazioak, partaidetza berdindua eta anean uneko egoerei erantzutea oinarritzko ezaugarriak baitziren. Horrela, ikastolak, hasi ahala eta elkarlankidetzan, beren eskola-ereduari forma ematen joan ziren, 60.eko hamarkada horretan ondoko ezaugarri hauek azpimarra genitzakeelarik:

1. Proiektuaren esanahi sozio-afektibo nabarmena: motibazioen izaera tinko eta afektiboa, elkartasun-jarrerara orokorrak, besteekiko irekitasun eta komunikazio-maila altua, elkarlankidetzak, talde-identifikaziorako balioa, dedikazioa (denbora aldetik zein baliabideen aldetik), seme-alaben heziketaren partaide eta erantzulea izatearen ardura (beldurra, harrotasuna...). Beraz, frankismoaren garaiko ikastolen mugimenduaren epe honetan, proiektuak esparru oso desberdinak (politikoa, soziokulturala,

nazioa, heziketa eta kolektiboa zein banakakoaren esparru afektiboak) zeharkatzen ditu.

2. Hizkuntzari ematen zaion funtsezko garrantzia, ez bakarrik euskal hiztunaren tamaina kontserbatzearen ikuspegitik, baizik eta gazteleradunak euskalduntzearen ikuspuntutik ere (Gipuzkoan agian ez hain nabarmenki, baina Bizkaian eratzeko hasi ziren ikastoletan erdaldunen kopurua nahikoa altua zen). Atal honetan hizkuntzaren aldeko borroka zuen esanahi politikoa azpimarratu behar dugu, baita nazioaren ikuspegitik betetzen zuen funtsezko papera ere. Beraz, euskalduntzea gertakari politiko-kultural bezala hartu behar dugu<sup>40</sup>.

3. Ikastolak hezkuntza-sistema ofizialetik kanpo eratu ziren, eta ez zeukaten erakunde ofizialen aldetik inongo laguntza ekonomikorik, ezta bestelako babesik ere.

4. Ikastolaren izaera herrikoa, inongo nortasun eta babes ofizialik ez zuen neurrian herri-partaidetza bihurtu baitzen benetako oinarria. Era honetara, dirulaguntzak, egoitzak, irakasleak, laguntzaileak, konponketak egiteko materialak eta lan-indarra... herriko jendeak betetzen zituen beharrak ziren. Gainera herrikoitasun honek ikastolari gizarte-dinamikan leku propio bat izateko aukera zabaldu zion, ikastola sozialki eragindua eta eraginkorra zen eskola-saio kokatua izan zelarik. Eskola kokatua izatearen garrantzia ez genuke arinki aipatu nahi, pedagogian hainbestetan tratatutako eskola eta gizartearen

arteko harremanek zuzenak, aberatsak eta komunikatiboak izan behar dutela esaten denean praktikan islada handirik ez duen zerbaitetaz ari garela ematen baitu. Ikastolak gizartean kokapen esanguratsu bat izatearen ezaugarria izan zuela eta oraindik duela ez dugu ahanzi behar.

5. Hamarkada honetan zehar ikastolen barruan partaidetza oinarrizko kontzeptua izan zen. Horrela, ez zen estamentuen artean bereizketarik egiten (nahiz eta irakasleek arazo pedagogikoetarako lan espezifikoa egin), ezta egitura hierarkizaturik agertzen ere. Ikastolari buruzko erabakiak eta erantzunkizunak era amankomun batez eta egitura sinpleen bitartez bideratzen ziren. Informazioa eta kontrola oso banatuta zeudela esan genezake, antolaketa-eredu autogestionario eta parte-hartzailea gauzatu zelarik.

6. Aurreko ezaugarriok agertzea errazten zuen aldagai bat hamarkada honetan zehar ikastolen mugimenduak zuen tamaina eskuragarria izan zen. 1960.etik aurrera urtez urte ematen hasi zen hazkunde erritmikoa ez zen oraindik funtzionamendu-eredu hau gainezkatzeko heinekoa, eraturako ikastolak bailaran sortzen zen berria berenganatzeko eta dinamikan sartzeko gai baitziren. Egoera hau urte batzuetan mantendu zen, baina hamarkadaren bukaeran hazkundea<sup>41</sup> azkartu zenean ereduak beharrei erantzuteko modukoa ez zela ikus dezakegu, eta beste antolaketa-mota agertu zen.

Mugimenduaren tamainaren esku-

ragarritasunarekin batera bere baitako mugikortasuna ere aitortu nahiko genuke. Izan ere, ikastoletako partaideak helburu desberdinekin toki askotatik mugitzen direla ikusi ahal izan dugu: andereñoak bilatzera, bileretara, praktikak egitera, beste herrietako esperientziak ezagutzera, udalekuak antolatuzera, ikastaroak egitera, ikastola ez zuten herrietara hitzaldiak eta umeen erakustaldiak egitera, atzerriko eskola-saioekin kontaktuak egitera... Ikastolagintzan sortzen eta birsortzen ziren harremanak mugikortasun honekin elikatu eta operatibizatu egiten ziren, informazioaren elkartrukaketa aberastuz eta azkartuz. Etengabeko bilaketa horretan, eremu publiko eta ofizialen ezean, elkarrekintzarako eremu kolektibo bat eraikitzen dela dirudi, harreman-sareek eta motibazioek lagunduta.

7. Maila pedagogiko batetik epe honek ematen dizkigun berrikuntzak ere garrantzizkoak dira, batez ere inguruan dauden ereduak eskola frankistarenak direla kontutan hartzen badugu. Puntu honetan Zipitriaren ekarpena azpimarratu nahi dugu, lehenengo garai hauetako irakasle batzuk pedagogia berriaren eta ekintzailearen aukeran prestatu baitzituen, nahiz eta indarrean zegoen joera erabat desberdina izan. Lehenengo andereño hauen formazioa, eratzen zihoazen ikastoletako andereño tituludun zein enpirikoen formazioa birsortzeko baliogarria izan zen, eredu pedagogiko ekintzailearen biziraupena ziurtatu zelarik.

Oro har, ikastolek garai haietako

hezkuntza-esparruan burutu zituzten berrikuntzak hauexek izan litezke:

a) 3. urtetatik aurrerako umeen eskolaratzea<sup>42</sup>, haur txikien heziketari benetako garrantzia ematen zitzaio-larik.

b) Irakaslegoaren formazio paraleloa eta andereño enpirikoen prestakuntza. Irakasleen etengabeko formazioa da ikastoletako ezaugarri nagusienetako bat. Irakasle tituludunen prestakuntza euskal eskolarako egokia ez zelarik eta gainera behar zen heinekorik ez zegoelarik, prestakuntza-bide paraleloak bultzatu ziren (andereño arituekiko praktika, Andereñoen Erresidentzia<sup>43</sup>, ikastaro berezi eta bilera pedagogikoen bitartez). Horrela euskal irakas-kuntzan aritzeko, berzizklaketa eta andereño enpirikoen prestakuntza burutu ziren. Irakaslegoaren prestakuntza paralelo honetan, andereñoek euskal eskolaren kalitateak zeukan garrantzia bere egitea eta honi jarrera ekintzaile eta zabal batez heltzea ezinbesteko baldintzak izan ziren. Andereñoak, haien prestakuntza pertsonala beraiek ekoiztutako baliabideekin burutu bitartean eskola-eredu euskaldun eta berritzailea gauzatzen saiatu ziren<sup>44</sup>, bere gain zuten erantzunkizuna oso handia zela jakinik.

d) Beste ezaugarri bat ikastola bakoitzean berrikuntza pedagogikoa ahalbideratzeko andereñoek gurasoekin mantentzen zuten harreman eta komunikazio-maila altua izan zen. Izan ere, gurasoek eskolez zeuzkaten itxaropenak eta ideiak eskola-eredu tradizionalean mugatuta zeudenez eskola

berriaren printzipioak sartzeak beldur-rrak eta zalantzak sortarazten zizkien. Egoera hau gainditzeko, planteamentu pedagogikoak era amankomunean lantzen ziren, gurasoek uler eta barnera zezaten. Elkarrizketetan esaten den bezala *benetako guraso-eskolak* ziren.

e) Ikastolen planteiamentuetan, hezkuntzaren arlo ez-formalak hartu zuen garrantzia ezohizkoa zen garaiotan. Izan ere, Zipitriaren eredutik eta hezkuntzaren kontzeptu zabal eta dinamiko batetik, ikastoletan arlo ez-formalak zuen tokia burutzen ziren ekintza desberdinetan isladatzen zaigu: ibilaldiak, udalekuak<sup>45</sup>.

f) Gerraurretik zetorren tradizio pedagogikoaren igorketa E. Zipitriaren bitartez burutu bazen, kalitatezko eskola egin beharrak joera pedagogiko berritzaileekiko loturak izatera bultzatu zuen ikastolagintza, besteak beste, Kataluniako Rosa Sensat eskolaren bitartez berriztutako Eskola Berriarekiko harremanak, eta agian ekarpenik interesgarriena zen Freinet eta Freireren pedagogia kritikoa-erekiko harremanak. Zoritxarrez, instituzionaltze-prozesuek esarritako joerak hezkuntzaren analisi soziala analisi esperimentalaz eta psikologizanteaz trukatu egiten zuen, pedagogia kritikoa-aren indar iraultzailea deuseztuz. Horren adierazlerik garrantzitsuena Saioka bildumaren eredu piagetianoa<sup>46</sup> dugu, hain zuzen mugimenduaren instituzionaltzearen epean testu-liburu gisa hedapen handia izan zuena.

Gain-gainetik aztertu ditugun ikastolen ezaugarri hauek, ordea, ez

dira mugimenduaren historia osoan zehar mantentzen, eta honetaz aparte beste ezaugarri gehiago ere aipa genitzake. Izan ere, gure ikerlan guztia gidatu duen asmoa ikastolen mugimendua bere izaera nazionaletik aztertzea izan den neurrian, herrialde bakoitzaren espezifikotasunak alde batera utzi ditugu eta maila nazionalean, frankismo bitartean, ematen zirenetara soilik mugatu gara. 60.eko hamarkadan agertzen diren ezaugarriek forma berezi eta konkretua ematen diote ikastolari, eredu eskolarra osatzearen ikuspegitik. Izaera hau, ordea, kolokan jarriko da 70.eko hamarkadaren hasieran ikastolen mugimenduaren barruan sortzen den konfliktua dela medio. Ez gara gai honetan sartuko, baina denborak ematen digun distantziatik ezaugarri aldaketak ikastolen historiaren beste epe berri baten iragarpena izan zela ondoriozta genezake.

---

### **Gerraondoko euskal eskola- gintzaren epeketarako proposamen batera hurbilduz**

---

Orrialdeotan laburtzen saiatu garen kontzeptualizazioak gerraondotik gaurdainoko euskal hezkuntzaren historiaren beste epeketa bat egitera ekarri gaitu ezinbestekoz, eta ez kapritxoz. Orain arte plazaratutako epeketa desberdinen azterketa egiten saiatuko gara lehenbizi, geroxeago hemen azaldutako diskurtsoaren ildotik epeketari buruzko hurbilpen proposamenari ekingo diogularik.

Ikastolen historiaz egin diren zenbait azterketatan gertakizun honen

epe desberdinak markatu izan dira. M. C. Garmendiak<sup>47</sup> bere tesian honelako epeak bereizten ditu: “1) Les ikastolas depuis leur création jusqu’à la guerre civile espagnole (1896-1936). 2) Résurrection des ikastolas dans l’après-guerre (1943-1960). 3) Expansion des ikastolas (1960-1976). 4) Vers la plaine reconnaissance des ikastolas (1976-1982).” Honetaz aparte, autore berak<sup>48</sup> beste autore askok bere egin duten beste epeketa ere erabiltzen du: “1) Clاندestinidad (1943-60); 2) Expansi3n y Legalizaci3n (1960-76); 3) Normalizaci3n jur3dica y equiparaci3n p3blica (1978-88)”.

Ikus daitekenez, lehenengo epeketa horretan ikastola oso esanahi zabalean hartua izan da, hau da, ikastola edozein euskal eskola mota bezala kontzeptualizatu da; ikastolaren historiaz baino euskal eskolaren historiaz ari dela uste dugu (nola hartu bestela ikastolatzat auzo-eskola, zein EIBko ikastolak, zein Muñoaren Ikastetxea, zein gaurko ikastolak?). Gure aburuz, gauza bat da euskal eskolaren (zentzu generikoan) azterketa historiko bat egitea, eta beste bat ikastolaren historia (nahiz eta ikuspegi semantiko batetik begiratuta ikastola hitza ordukoa zela kontutan hartu). Ikastola hitza, 60.ean aztertzen ari garen fenomeno agertu arte, esanahi anitzekoa zen, baina anitzasun hau esanahi bakarreko bihurtzen da azken garai honetan. Aipamen hauek egiterakoan gure helburua ez da hitz hau edo hori, honi edo hari eman edo ukatzeko gogoia, baizik eta kontzeptuak argitzea eta elkar ulertzea. Gure proposamena ildo honetatik dator



eta ikastola esatean gaur egun zabaldua dagoen euskal eskolaren eredua burura datorkigun neurrian honelaxe deituko genioke. Hortaz, euskal eskolaren historiak eskola-eredu desberdin asko eman ditu, ikastola horietako bat izaki.

Bigarren sailkapenez antzeko zerbait esan beharko genuke lehenbiziz. Lan honetan frogatzen saiatu garen bezala, Zipitriaren saioa gerraurreko eskola-ereduan errotuta zegoen (bai ideologian, bai antolakuntzan, baita pedagogian ere), eta ikastolarekin garapen historikoak ematen duen jarraipen eta batasuna baino ez diogu aurkitu, ez beste antzik. Honexegatik etxe-eskola deitu diogu, beti kontzeptua argitzeko desio horrekin. Ikastolak, euskal kulturaren modernotze-prozesuaren emaitza dira, eta testuinguru honetan kokatu behar ditugu; Zipitriaren esperientzia ez dugu hartzen ikastolen klandestinitate garai bezala, ikastola kontzeptu berria sortzeke baitzegoen. Bestaldetik, “Expansión y legali-zación” “Normalización jurídica y equiparación pública” izenekoepeak sailkatzean, Euskal Autonomi Elkartearen irizpideari jarraitu zaiola uste dugu, eta ikastola gertakizun nazionala den heinean ez du balio errealitatea bere osotasunean taxutzeko.

Epeketa hauek kritikatzera, ikastolen mugimendua denboran banatzeak dakarzkigun zailtasunen berri eman digu, eta beste ahalegin bat egiteko bidea ere. Gauzak honela, ikastola, aurreko euskal eskolaren saio guztiekin nolabaiteko antzekotasuna eta lotura onartu arren, 60.etik aurre-

rako gertakizun bezala hartuko dugu, eta, ikastolaren historiaz ari bagara, Euskal Herri osoari dagokion zerbaitetaz ari garela onartu behar dugu, beraz, epeketak herrialde desberdinen errealitatea isladatu beharko luke.

Azken hau, ikastola gertakari nazional bezala aztertzea, zailtasun gehien ematen digun baldintza da arrazoi desberdinengatik. Batetik ikastolak ez dira sortzen momentu berean, ezta indar berdinarekin ere. Bestetik hazkundera Gipuzkoan eta Bizkaian oso goiztiarra eta handia izan zen bitartean, beste herrialdeetan beranduago eta era pausatuago batez eman da, lehenengo bi horien kopurutik oraindik oso urrun daudelarik. Hau kontutan hartuta, ikastolen mugimenduan antzekotasun eta praktika amankomun asko ematen diren arren, garapen-erritmo desberdinak daudela esan dezakegu. Honi, herrialde bakoitzaren izaera administratibo-politiko, legezkoa, linguistikoa eta sozio historikoa gehitzen badiogu, ikastolaren konplexutasun eta aberastasun guztia somatzen has gaitezke (ez dugu ahantzi behar, ikastola nazioaren eraikuntzaren markoan sortu bazen ere, nazioa artikulatzen duen tresna politiko administratiborik ez duela Euskal Herriak, eta honek ikastola bezalako proiektu bati oztupoak baino ez dizkio jartzen).

Ikastolen mugimendua, mugimendu sozial guztiak bezala, boterearekiko harremanaren nolakotasunaren arabera aztertu behar dugu; ikastola sortzen den momentuan, boterearekiko inongo harremanik ez

egotetik, egiten duen proposamena gizartean eta boterean ere onartuagoa izatera pasatzen da, normalkuntza handia sortuz. Frankismoa bitartean ikastolek boterearekiko tentsioa partaidetza handiaren oinarrian mantentzen dute, euskal hezkuntza ofizialtasunetik at iraunaraziz. Transizio garaian proposamena bide normalduago batetik abiatzen diren heinean partaidetza ere behera doa eta ikastolek berek sortzen dituzten egituren bitartez funtzionatzeko joera handiagoa somatzen da. Honi jarraiki honako hau ikusten dugu, Euskal Herriari ezarri zaion banaketa politiko, administratibo eta legalen ondorioz, botere publiko desberdinekiko harremanetan aniztasuna eta proposamenaren onarpen-maila desberdinak aurkitzen ditugula, tokiz tokiko beharren arabera ikastolen partaidetza eta egituraketan maila desberdinak eskuratuz. Euskal Autonomi Elkartearen euskal hezkuntzaren inguruan lortu den onarpen-maila sare publikoan ezarri diren hizkuntz ereduaren isladatu dela esan genezake, oro har, proiektuaren nolabaiteko normalkuntza orokortuz; Nafarroan eta Iparraldean, ordea, botere publikoek beste jarrera bat azaldu dutenez, mugimenduan dagoen partaidetza-maila altuan mantentzen da. Beraz, normalkuntza-maila desberdinak aurkitzen ditugu.

Dena den, eta epeketari berriro lotuz, frankismoaren garaian badago ikastolen mugimendua orokorrean ezaugarritzen duen gertakari bat: gatazka. Frankismoaren bukaera

garaian, ikastolak gizartean sustatu eta hazi egiten direnean, mugimenduaren definizioaren inguruko eztabaiden eta istiluen abadagune bihurtzen dira, krisi honetatik ikastolen mugimenduak funtzionamendu-eredua eta ideologia umatuko dituelarik.

Gatazka hau orokorra da (Iparraldean izan ezik, hain justu orduantxe ari baitziren sortzen bertan) eta mugimenduaren kontrola eskuratzeko borroka bat bezala interpreta genezake; krisialdi honen ostean barealdia dator (ikastolen munduan baretasuna inoiz egon bada) normalkuntzarako bideari hasiera emanez. Haatik, behin eta berriz azpimarratu nahi genuke normalkuntza hau erritmo desberdinekoa izango dela, hortaz, herrialde bakoitzak izango duen partaidetza eta egituraketa-maila ere desberdina izango dela.

Orain arte frankismoan garatutako euskal heziketari buruzko osagai batzuk eskuratu ditugula esango genuke. Batetik etxe-eskola eta ikastolaren arteko bereizketa, eta beste aldetik, ikastolen barruan alde-rantzizko erlazioan dauden partaidetza eta egituraketa-maila, eta ikastolen gatazka. Horren arabera, frankismoaren garaiko epeketari dago-kionez honako proposamena egin genezake:

1.- Donostiako etxe-eskolak (1946-1969). Lehenengo eta behin frankismoan Euskal Herrian ondo bereizitako eskola-saio desberdin bi agertzen zaizkigu, bata bestea baino goizago agertzen delarik. Etxe-eskola deitu dugun Donostian E.

Zipitriaren inguruan sortutako esperientziek lehenengo epe bat betetzen dutela uste dugu, 1946.etik 1969.era zabaltzen den epea. Hasiera Zipitriak bere etxe-eskola irekitzen duen urtearekin bat dator, 1969.ean Gipuzkoako Gobernadore Zibilaren aginduarekin bukatzen delarik.

Esperientzia hau euskal alfabetatzeaz<sup>49</sup> egiten den analisi orokorretik begiratu gero, eta eskola-mota orok lehenengo alfabetatzearen funtzioa betetzen duela kontutan hartuta, “Alfabetatze Murriztua”ren karakterizazioan txertatuko genuke. Egileek, Alfabetatze Murriztua 1940tik 1969ra arteko epean kokatzen dute: “Epealdi honetako alfabetatze-moduari buruzko ezaugarri nagusiak, parte hartzen duten taldeen tipologia eta alfabetatze murriztuaren euskararen erabilerak dira, non euskararen alderdi literarioa azpimarratzen den, ikasketa aurreko testuetan oinarrituta egiten den eta Euskaltzaindiak “euskara literarioa”ren inguruko proposamenak egiten dituen. Murriztasunaren ezaugarri bat dator era berean, gehienbat alfabetatu daitezkeen euskaldunen kopuru murriztarekin”<sup>50</sup>. Euskal alfabetatzearen epeketa erabiltzen diren hiru irizpideei (alfabetatze-moduak, euskararen erabilera eta kode ideologikoa) jarraiki, Alfabetatze Murriztua “...alfabetatze-modu literarioa, euskararen erabilera gutxiagotua eta nazionalismo ahuldua...”<sup>51</sup> ezaugarriekin hornituta agertzen zaigu.

2. Ikastolen Mugimenduaren Sorrera eta Lehenengo Hedapena

(1960-1975). Ikastola, lan honetan zehar kontzeptualizatu dugun bezala, etxe-eskolaren muga estuak gainditu eta herrietan euskal eskolaren saioak gauzatzean jaiotzen dela esango genuke. Donostiatik herrietara igarotzean, eskolarako baldintzak aldatu egiten dira, gizartean orokorrean baldintzak aldatzen ari ziren era berean. 1960. urte honetatik aurrera, Donostiako etxe-eskolek funtzionatzen zuten arren, adierazpen ahuldu gisa ikusten ditugu goranzko joerak ikastola aupatzen zuen bitartean.

Hamabost urte hauetan ikastolak euskaldunen alfabetatze-funtzio hori gainditu eta umeen euskalduntze-prozesuari zabaltzen dio atea; eskolarizazio-maila guztiei erantzuten zaie; irakaslegoa era espezifiko batez formatzen da (ez titulu ofizialen arabera); ikuspegi pedagogiko kritiko batetik egiten da lan; elkarlanerako mekanismoak antolatzen dira; partaidetza oso zabala da, eta ikastolak euskararen gune “enblematiko” bihurtzen dira. Ezaugarri guzti hauek zehatzago aztertu ditugu, baina etxe-eskolarekiko diferentzia aski nabaria dela uste dugu.

Euskal alfabetatzearen ikuspuntu orokorrari so eginez gero, 1968-1980 artean “Alfabetatze Hedakorra” aurkitzen dugu, eta ezaugarriak “...alfabetatze-modu kritikoa, euskararen erabilera aurrerakorra eta birdefinizio nazionalista...”<sup>52</sup> ditugu. Kasu honetan, ezaugarriek lehenengo alfabetatzearekin karakterizazio zehatz bat ematen badigute ere, denboran bat ez datozela ikusten dugu. Gure aburuz, honen arrazoia

nahikoa argia da, zeren ikastolen hedapena helduen alfabetatze-mugimenduarena baino lehenagokoa izan baitzen, eta ez dakigu noraino ez ote den zuzena izango ikastolen mugimenduak helduen alfabetatze- eta euskalduntze-prozesuak bultzatu eta elikatu zituela baieztatzea. Ikastolak, garai honetako euskal kulturaren gertakari sozial bezala goizen agertzen dena da eta bere garapena euskal munduaren adierazpenen eraginkor bihurtu zela uste dugu.

Dena den, markatu dugun epean ikastolen ezaugarriak ez dira mantentzen. 70.eko hamarkadaren hasieran elementu berri batzuen agerpenarekin eta batez ere mugimenduak hartu zuen tamaina itzelarekin, hasierako ezaugarriak eraldatzen eta egoera berriei egokitzen joaten dira. Frankismoaren bukaeraren perspektiba, ETaren barruko zatiketak, gizartearen mobilizazio egoera ia etengabea, euskal kulturaren birformulatze orokorra eta hezkuntza-lege berria dira, besteak beste, ikastolen inguruan dauden elementuak. 70. urtetik aurrera beste epe desberdin baten hasieraren urratsak antzeman ditzakegu. Batetik, Gipuzkoako Federazioak (1969) suposatu zuen egituraketa formala<sup>53</sup> (funtzioen banaketa, informazioaren konpartimentalizazioa, hierarkizazioa...), bestaldetik botereak derrigortu zituen legeztatze-prozesuak, eta azkenez Estatu mailan hezkuntza-sisteman ezartzen ari zen formalizazioa eta finkapenari aurre egiteko neurriak eta politika (maila honetan 1970.ean Ley General

de Educación delakoaren esanahia eta eragina ondo kokatzea funtsezkoa da<sup>54</sup>). Dударik gabe, elementuok oso lotuta daude eta haien arteko mugaketa egitea ezinezkoa da, baina guretzat interesgarriena honako hau da, aldagaiok ikastolen mugimenduaren bilakaeran izan zituzten eraginak, ordura arteko dinamikan sortu zuten etena eta ekarri zuten eraldaketa.

Horren adierazle zuzena ikastolen barruko gatazka dugu, nolabait ideologia kritiko eta tradizionalaren arteko txokearen ondorioa dena. Bertan, boterearekiko loturak inposatzen dituzten kontraesanak ikusten ditugu, baita instituzionaltze horrek ekarri zituen ordain handiak ere.

3. Ikastolen instituzionaltze-prozesuak (1975...). Gatazkaren ondoriozko tentsioak leuntzean eta nolabait krisialdia gaindituztat jo dezakegun eman behar dugu bukatuztat ikastolen mugimenduaren lehenengo epea. Hurrengoak, hemen aztertu ez ditugun ezaugarri berriak hartu zituen eta instituzionaltze-epe bat bezala defini daitekeela uste dugu. Ez da, lehen aipatzen genuen bezala, instituzionaltze homogeno eta bateratua, zeren kasu honetan errealitatean administrazioa interlokutore garrantzitsu bihurtu baita, honek mugimenduari dakartzkion ondorio guztiekin.

Gure lan honen bukaera konfliktuaren aipamenarekin ezarri dugu, zeren krisialdiak ondo adierazten baititu aurreko epearen ekarpenak eta ondokoaren jarraibideak. Dena den, instituzionaltze-prozesuak azterketa

dibertsifikatu beharra azaltzen du, eta alde-aldeko hausnarketarik gabe oso azalekoa izango litzateke orokortasunaren izenean hitz egin nahi duen azterketa. Beude hor bada, euskal hezkuntzaren sistema nazionalaren

diskurtso historikoaren eraikuntzarako ikerbide berriak zabalik, ikuspegi historiko batetik agian oraindik garai hurbilegiak baina euskal eskolagintzaren lan kolektiboaren ikuspegitik ezinbesteko desfioa.

---

## Oharrak

---

- 1 ZALBIDE, M. (1990). Euskal eskola, asmo zahar bide berri. In *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaz*. 227. or.
- 2 DAVILA, P. (1988). El “Problema Vasco” en educación: conflicto y control en la enseñanza en el País Vasco. *Control y Poder*(1).
- 3 M.C. Garmendiak autore desberdinen erabilerak aztertzen ditu. Honela Pedro Astarloa frantziskotarrak *icasola* hitza erabiltzen du unibertsitate esanahiaz. Esanahi berdinerako erabiltzen du F. Aizkibekek *ikas-ola* grafiarekin, nahiz eta ikas-olak (pluralean) “escuelas, casas donde se enseña a los discípulos algunos conocimientos” esanahia agertu. Sabino Aranak, gaurdaino heldu den grafiaz, “escuela” esanahiarekin azaltzen du. GARMENDIA, M. C. (1985). *Les ikastolas en Pays Basque D’Espagne. La question du bilinguisme scolaire*. Strasbourg: Argitaratu gabeko tesia. 87. or.
- 4 GARMENDIA, M. C. (1985). *Les ikastolas en Pays Basque D’Espagne. La question du bilinguisme scolaire*. Strasbourg: Argitaratu gabeko tesia. 87. or. Autore honek ikastola hitzaren espezializazioa gerraostean eman zela gaineratzen du, eta 1943.etik aurrera hitz honek esanahi bakarra hartuko duela, alegia, “école où l’enseignement se fait en langue basque”, E. Zipitriaren eraginari esker. Gure ustez, Zipitriaren eragin onuragarriari inongo garrantzirik kendu gabe, ikastola hitzaren espezializazioa eta esangura bakar batez finkatzearen arrazoiak 60.eko hamarkadaren gizarte-aldaketetan bilatu behar dira. Honexegatik, 1943. urteko data baino askoz beranduagoak diren testuetan esanahien aniztasuna mantentzen zela ikus daiteke, 60.eko hamarkadatik aurrera esangura bakarraz agertzen zaigularik. Gure ustez horren frogarik adierazgarrienetako bat “Umeen Deia” aldizkarian aurkitzen duguna da. “Umeen Deia” 1959-1965 bitartean Aita Felipe de Murieta nafarrak (1897-1966) argitaratu zuen aldizkaritxo bat izan zen. Bertan, euskarari bultzada emateko asmoz, umek beren euskarazko idazlanak argitaratuta ikusteko aukera zabaltzen zen. Lehenengo alfabetatze ez-formalari buruz ematen digun informazio baliotsuaz gain, bere orrialdeetan aurki dezakegun ikastola hitzaren esangura gerraurrekoaren modukoa dela argi ikusten da. Adibidez: “Ikastola bat daukagu, Kristau-Ikasbidea, eta irakurtzen, idazten eta kontuak egiten erakusten diguna euskeraz” (Lezotik; 215. orri.) edo “Orain ez daukagu ikastolara joaterik; lengo maistra toki berrira aldatu zaigulako, eta

- berriaren zai gaudelako. Ikastola ere berria egiten hasi zaizkigu, ta maistra berria euskalduna izango bagendu, poztuko ginateke euskeraz ikasteko” (Albisturretik; 134. orri.). TORRES, I. (1971). *Umeen Deia*. Bilbo: Claret.
- 5 Ez da gainera arinki ahaztu behar, azkenengo urteetan Euskal Elkarte Autonomoan D ereduko zentruak, beraz euskarazkoak, eratu diren arren, ikastolaz bestelako euskal eskolatzat hartzen direla.
  - 6 Hemen azaltzen ari garena ikerketa zabalago baten zenbait hausnarketa dira. Ikus: FERNANDEZ, I. (1993). *Ikastolen mogimenduaren historia. 1960-1975*. Euskal Herriko Unibertsitatea: Argitaratu gabeko tesi doktrala.
  - 7 1946.eko data hau, E. Zipitria Fermin Calbeton kaleko bere etxean klaseak ematen hasten denekoa da, hau da, maistra tituludun batek bere etxean edota alokairuzko etxe bateko geletan ume-talde bati klaseak ematen hasten denekoa. E. Zipitria, ordea, lehentxoagotik zebilen etxe desberdinetan ume jakin batzuei eskola ematen (Egia, Arriola eta Goenaga familietan), baina taldea osatu eta eskola formalaren moduko saiorik aipatutako etxe-eskola zabaldu arte zegoenik ezin baieztatu dezakegu. E. Zipitriaren bizitzari buruzko datuak ezagutzeko ikus: ARANBURU, X. (1991). Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Elbira Zipitriaren biografiarako jakingaiak: Ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean. *Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación*(4).
  - 8 Aipatu dugun ikerketarako erabili izan dugun metodologia ahozko historia izan da, ikus: GARCIA-NIETO, M. C., VAZQUEZ, M., & VILANOVA, M. (1990). *Historia, fuente y archivo oral*. Madrid: Ministerio de Cultura. JOUTARD, P. (1986). *Esas voces que nos llegan del pasado*. Mexiko: Fondo de cultura económica. JOUTARD, P. (1984). El tratamiento del documento oral. *Debats*(10). THOMPSON, P. (1988). *La voz del pasado. La historia oral*. Valentzia: Edicions Alfons el Magnànim. THOMPSON, P. (1984). La historia oral y el historiador. *Debats*(10).). Aukera metodologiko honi jarraiki, ikastolen mogimenduaren partaideekiko elkarrizketak izan dira gure ikertresna nagusia.
  - 9 ARRIEN, G. (1987). La ikastola Azkue, la primera en ser legalizada en Vizcaya en 1966. *Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación*(2).
  - 10 ARANBURU, X. (1991). Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Elbira Zipitriaren biografiarako jakingaiak: Ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean. *Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación*(4). ARZELUS, A. (1985). Iraíren omenez. In Euskerazaintza (Eds.), *Zipitria tar Elbire Andereñoa. Omenaldia* Tolosa: Lopez Mendizabal. GARATE, J. (1985). Elbira Zipitria Irastorza. In Euskerazaintza (Eds.), *Zipitria tar Elbire Andereñoa* Tolosa: Lopez Mendizabal. LARRAÑAGA, P. d. (1978). *Emakume Abertzale Batza*. Auñamendi. LEKUONA, M. (1985). Elbira Zipitria. In Euskerazaintza (Eds.), *Zipitria tar Elbire Andereñoa. Omenaldia* Tolosa: Lopez Mendizabal.
  - 11 IZTUETA, P. (1992). *Orixeta bere garaia*. Donostia: ETOR- Eusko Jauriaritza. 279. or.



- 12 LOPEZ MENDIZABAL, I. (1967). *Xabierto. Umiei euskeraz irakurtzen erakusteko idaztia*. Tolosa. Hirugarren argitaldia.
- 13 LOPEZ MENDIZABAL, I. (1967). *Xabierto. Umiei euskeraz irakurtzen erakusteko idaztia*. Tolosa. Hirugarren argitaldia. 111. or.
- 14 ELORZA, A. (1978). La mujer en el nacionalismo vasco. *Tiempo de Historia*(38). LARRAÑAGA, P. d. (1978). *Emakume Abertzale Batza*. Auñamendi. UGALDE, M. (1992). El movimiento de las mujeres en la Comunidad Nacionalista Vasca hasta la guerra civil. In *I. Congreso de Historia Contemporánea*. Salamanca. UGALDE, M. (1992). Identidad femenina y nacionalismo vasco. In *ISSEIren III. Konferentzia*, Danimarka. SEBASTIAN, L. (1991). Las organizaciones y actividades de las mujeres nacionalistas vascas durante la Guerra Civil. In *Las mujeres y la guerra civil española* Madril: Instituto de la Mujer.
- 15 VALLE, T. d. (1985). *Mujer vasca, imagen y realidad*. Bartzelona: Anthropos. 229. or.
- 16 VALLE, T. d. (1985). *Mujer vasca, imagen y realidad*. Bartzelona: Anthropos. 242. or. Egileek EABko emakumeak, hauteskunde garaietan, boto-bila etxez etxe joaten zirela (leku guztietan nor bizi zen, eta nola pentsatzen zuen jakiten zutelarik) azpimarratzen dute: “Este trabajo sólo es posible por el conocimiento de un mismo terreno compartido” (241.or.). Gogora dezagun mekanismo hauxe bera ikastolen sorreran berragertuko zaigula.
- 17 VALLE, T. d. (1985). *Mujer vasca, imagen y realidad*. Bartzelona: Anthropos 249. or.
- 18 GURIDI, L. (1923). Euskal ikastolarik onena etxe-eskola. *Euskal Esnalea*, 250.
- 19 LABAYEN, A. M. (1971). Euskal ikastetxe eta ikastolak. *Aranzazul*.
- 20 Elbira Zipitria bera, erbestaturik zegoenean, Labaien familiaren semeen irakaslea izan zen. Ikus: ARANBURU, X. (1991). Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Elbira Zipitriaren biografiarako jakingaiak: Ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean. *Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación*(4)., 14. or. Ramon M. Labainek kontatuta.
- 21 BOTT, E. (1990). *Familia y Red Social*. Madril: Taurus. Euskal emakumearen hezkuntza-eginkizunen esanahiaz ikus: FERNANDEZ, I. (1993). Emakumea, hezkuntza eta nazioa Euskal Herrian. “*Ikerkuntza, Irakaskuntza eta Feminismoa*” *Nazioarteko Kongresua*/n aurkeztutako komunikazioa. Donostia.
- 22 Emakume Abertzale Batzaren barruko ideologiaz ikus: UGALDE, M. (1992). El movimiento de las mujeres en la Comunidad Nacionalista Vasca hasta la guerra civil. In *I. Congreso de Historia Contemporánea*. Salamanca; UGALDE, M. (1992). Identidad femenina y nacionalismo vasco. In *ISSEIren III. Konferentzia*, Danimarka.
- 23 VALLE, T. d. (1985). *Mujer vasca, imagen y realidad*. Bartzelona: Anthropos, 243. or.
- 24 ZULAIKA, J. (1990). *Violencia Vasca, metáfora y sacramento*. Nerea Argitaletxea. 314. or.



- 25 IZTUETA, P. (1992). *Orixe eta bere garaia*. Donostia: ETOR- Eusko Jaurilaritza. V. liburukia, 112. or.
- 26 ELORZA, A. (1978). La mujer en el nacionalismo vasco. *Tiempo de Historia*(38). 17. or.
- 27 Gerrak, gertakari politiko militarra den heinean, espazio desberdinetan eragin desberdinak (alegia, eragin handiagoa espazio publikoan pribatuan baino) izan zituela onartzen badugu oso galdera interesgarriak bururatzen zaizkigu. Izan ere, zer gertatu zen espazio pribatu horietan gerraostean? Nolako eragina izan zuen belaunaldi berriaren sozializazioan gizonezkoek espazio pribatu horietan aritu behar izanak? Guzti honek badu zerikusirik 60.eko hamarkadatik aurrera suertatutako osagai kultural eta linguistikoen politizazioarekin (hau da, espazio publikoan osagai politikoaren bitartez aritzearen ezintasunean, osagai kulturalen bitartez aritzea)? Gizonezkoek espazio pribatuan aritzeko derrigortasun honek, zelan eragiten die 60.eko hamarkadatik aurrera euskal eskolaren munduan suertatzen den mistotze- eta instituzionalizatzeko-prozesuei?
- 28 ELORZA, A. (1978). La mujer en el nacionalismo vasco. *Tiempo de Historia*(38). 17. or.
- 29 FERNANDEZ, I. (1993). *Ikastolen mogimenduaren historia. 1960-1975*. Euskal Herriko Unibertsitatea: Argitaratu gabeko tesi doktora.
- 30 VALLE, T. d. (1985). *Mujer vasca, imagen y realidad*. Bartzelona: Anthropos, 250. or.
- 31 LANDETA, E. (1923). Proyecto de Escuela Primaria Elemental. *BSEVI*(17). E.I.B. (1933). Informe de la gestión del primer ejercicio presentado por la Junta de Gobierno del Euzko Ikastola Batza. 1932-33. .
- 32 ARANBURU, X. (1990). Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Maria Dolores Goya (Groseko ikastola). *Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación*(3).
- 33 Ematen ditugun datak gutxi gora-beherakoak dira zeren iturri desberdinek ez baitute bat egiten.
- 34 Iruñeko kasuan, 1962-63 ikasturtean Salsipuedes kalean ikastola zabaldu zen baina poliziak lehenengo egunean itxi zuen (Patxi Zabaletarekiko elkarrizketa, 1991.eko Uztailan).
- 35 Honi buruzko bibliografia oso zabala da. Adibide gisa: ARREGI, P. (kord). (1992). *Euskal Alfabetatzearen azterketarako lehen urratsak. 1960-1990*. argit. gabe. CAMARA, G. (1984). *Nacional-Catolicismo y Escuela. La socialización política franquista*. Hesperia. ESCOLANO, A. (1989). Discurso pedagógico, modernización técnica y pedagogía crítica durante el franquismo. *Historia de la Educación*(8). IZTUETA, P. (1981). *Sociología del fenómeno contestatario del clero vasco. 1940-1975*. Zarautz: Elkar. HALLAK, J. (1990). El planeamiento de la educación: algunas reflexiones retrospectivas y perspectivas. In SANTILLANA (Eds.), *Prospectiva, reformas y planificación de la educación. Documentos de un debate* Madril: Santillana. PUELLES, M. (1980). *Educación e ideología en la España contemporánea (1767-1975)*. Bartzelona: Labor. TORREALDAI, J. M. (1971). Kulturgintza eta Rikardo. In

- J. M. TORREALDAI (Eds.), *Rikardo Arregi Oñati: Jakin Sorta*, 3. TORREALDAI, J. J. (1982). Euskararen zapalkuntza (1936-1939). *Jakin!*(24).
- 36 Gogora ditzagun garai honi buruzko ikerketetan hainbat aldiz agertzen diren PNVri leporatzen zaion “inmobilismoa” eta belaunaldi berriek duten “ekin” beharra. Nola ekin baina, osagai politikoaren susmoa zeukan edozer gogor zigortua bazen? Kultur eta hizkuntz osagaiak dinamizatu; gainera ez dugu ahortzi behar nazionalismo berriak nazioaren definizioarako hizkuntzan jartzen duela funtsezkotasuna (Txillardegi, Krutwig). Gerrak, nazionalismo tradizionalan gizona zegoen omen zitzaion politikagintzaren espazio publikoaren desagertzea ekarri zuen. EKIN eta ETaren sorreraren parez, hizkuntza ardatza den espazio publikoa eraikitzen hasten da, espazio pribatuaren muga estuak gainditzen laguntzen duen erresistentzi espazio zabala. Kulturgintza honetako sareak mistoak dira, eta osagai kulturalak eduki politiko handia du (honexegatik esan ohi da ikastoletako gurasoak eta andereñoak benetako militanteak zirela, ekintza politikoarekiko paralelotasunagatik).
- 37 Zabaldu beharra edota ikastoletako partaideen aldetik bilatu eta bultzatutako hedakortasuna Donostiako etxe-eskolan sartutako EKINeko partaideengan ere antzeman dezakegu. Gure ustez belaunaldi berriaren grina hobekien gorpuzten duen pertsona Karmele Esnal da. 1953.ean etxe-eskola bat antolatu eta 60.etik aurrera ikastolen mugimenduaren partaide eta laguntzaile nekazekin bihurtuko zen, bere funtsezko ekarpena, besteak beste, andereñoen prestakuntzan zehaztu behar dugularik. Hedatzeko nahia, baina, era amankomun batez 1963.etik aurrera eman zen, ikastolen arteko koordinaketa hasi zenean: “Lokalak, kuotak, eta andereñoak lortzearen arazoak herri-mailan konpondu behar ziren eta koordinaketa-bilera hauetara informazio gisa agertzen ziren gai hauek. Amankomunak ziren beste gai batzuk berriz, bertan debatitu eta aztertzen ziren. Koordinaketa hauetatik ikastolak beste herrietara zabaltzearen helburuak zehaztu ziren, eta lanari ekin zioten eskualdearen kriterioari jarraiki; horrela herri bakoitzekoak joaten ziren ondoko herrietara, han lagun bategin hitz egin eta abertzaleak edo euskaltzaleak omen ziren pertsona batzuk elkartu eta ikastola egiteko proiektua proposatu eta egitera animatu” (Felix Etxeberria, Jose M. Soroa eta Jaxinto F. Setienekin eginiko talde elkarrizketa baten ondorioetatik hartuta. 1991/9/12).
- 38 ARREGI, R. (1971). Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu. In J. M. TORREALDAI (Eds.), *Rikardo Arregi Oñati: Jakin Sorta*, 3.
- 39 Oso interesgarria deritzogu 50.eko hamarkadan, arlo politikoko EGI edo EKINen lanaz gain, Eliza ez-hierarkikoaren ondoan suertatutako herri-lanari; Ikus: ikuspuntu antropologikoan “ekintza”ren esanahia, ZULAIKA, J. (1990). *Violencia Vasca, metáfora y sacramento*. Nerea Argitaletxea. BERRIAK (1976) Herri Gaztedia, zer?. Sakonarekin hizketan. *Berriak*, 7.
- 40 ARREGI, P. (koord.). (1992). *Euskal Alfabetatzearen azterketarako lehen urratsak. 1960-1990*. argit. gabe.

- 41 SIADECO (1980). *Estudio Socio-lingüístico del euskera. VII: Las Ikastolas*. argit. gabe. Lan honetan ikastolen mugimenduaren kuantifikazioa egiten da, bertan mugimenduaren baitan ematen den hazkundearen tamaina argi gelditzen delarik.
- 42 AZURTZA, M. J. (1969) Tipien eskoletako andereñoentzat ikastaro berezia. *Zeruko Argia*.
- 43 BASTERRA, J. (1989/12/15). Andereñoen Erresidentzia, eredu pedagogiko berri baten iturburua. *EGIN/*.
- 44 Andereñoen elkarlanak, ikastolak ugaritu ahala eta praktikak irakasten zuenaren ondorioz, aurrepau batzuk eman zituen 60.eko hamarkadaren bukaerarako; ikastolagintza gertakari murriztu eta isolatua izatetik 1969.ean 8.247 ume (171 Araban, 5.770 Gipuzkoan, 348 Nafarroan eta 1.958 Bizkaian) eskolaratzen zuen eskola izatera iritsi zen, irakasle-kopurua ere, datua oso zehatza ez den arren, 300 ingurukoa zelarik. Testuinguru honetan, eta ikastolen errealitateak eskatzen zuen lan-antolamendu zehatz, finko eta egokiago bati jarraiki eratu zen Gordailu. Gordailuren ekarpenak irakasleagoaren formazioan, material didaktikoaren sorkuntzan eta liburugintzan kokatu behar ditugu, eta ikastolen mugimenduaren ulermenerako funtsezkoa dela uste dugu. Ikus: ALLUR, A. (1972). Ikastolak eta irakasleak. In Jakin (Eds.), *Gure Ikastola* Oñati: Jakin Sorta, 6; GORDAILU ARDURADUN TALDEA (1978) Gordailu. *Urrats, euskal pedagogia aldizkaria*; SETIEN, J. F. (1979) Gordailu eta euskal pedagogia. *Jakin*, 11; UZEI (1979). *Ikastoletarako textuliburuak*. argit. gabe.
- 45 ABANDA, G. (1990/12/2). Nekane Azurmendi: “La experiencia de la primera colonia en el monasterio de Barria es irrepetible”. *Diario Vascol*. AGIRRE, J. (1990). La primera colonia clandestina de las ikastolas vuelve a Barria. *EGIN/*. ARANTZA (1971) Udalekuak, ume-heziketaren jarraipen. *Anaitasuna*
- 46 Ikastolen barruko bilakaera pedagogikoari buruzko azterketarako ikus: FERNANDEZ, I. (1993). *Ikastolen mugimenduaren historia. 1960-1975*. Euskal Herriko Unibertsitatea: Argitaratu gabeko tesi doktoralak. Iturri zuzenei gagozkielarik, Gordailuren aldizkarian agertutako artikuluez gain, ondokoak dira adibide argigarriak: ARREGI, P. (1972/5/6) Kontzientziarazteaz. *Gordailuko irakasleen aldizkaria*. MONES i PUJOL-BUSQUETS, J. (1981). *L’escola a Catalunya sota el franquisme*. Bartzelona: Rosa Sensat Edicions, 370. or. HARANBURU ALTUNA, L. (1971/5/6). Pedagogia askatzailea. *Gordailuko irakasleen aldizkaria/*. OSA, E. (1972). *Pedagogia eta gizartea*. Donostia: Lur. SAIOKA (1978) Haurra aktibitatean hazi eta hezi egiten da (I). *Anaitasuna*.
- 47 GARMENDIA, M. C. (1985). *Les ikastolas en Pays Basque D’Espagne. La question du bilinguisme scolaire*. Strasburg: Argitaratu gabeko tesia.
- 48 GARMENDIA, M. C. (1972). Ikastola. In B. ESTORNES LASA (Eds.), *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. XIX. tomoa* Donostia: Auñamendi. ARPAL, J., ASUA, B., & DAVILA, P. (1982). *Educación y sociedad en al País Vasco*. Donostia: Txertoa.

- 49 ARREGI, P. (koord.). (1992). *Euskal Alfabetatzearen azterketarako lehen urratsak. 1960-1990*. argit. gabe. DAVILA, P., EIZAGIRRE, A., & FERNANDEZ, I. (1992). Elementos para la elaboración de un modelo de alfabetización vasco. In *X Congreso Nacional de Pedagogía*. Salamanca.
- 50 ARREGI, P. (koord.). (1992). *Euskal Alfabetatzearen azterketarako lehen urratsak. 1960-1990*. argit. gabe, 6. or.
- 51 berdin, 8. or.
- 52 ARREGI, P. (koord.). (1992). *Euskal Alfabetatzearen azterketarako lehen urratsak. 1960-1990*. argit. gabe, 9. or.
- 53 Ikus : LASA, J. (1971). *Euskal erria eta ikastola (una polémica en torno a la ikastola)*. Donostia: Edili. JAKIN (1972). *Gure Ikastola*. Oñati: Jakin Sorta, 6.
- 54 CAMARA, G. (1984). *Nacional-Catolicismo y Escuela. La socialización política franquista*. Hesperia. PUELLES, M. (1980). *Educación e ideología en la España contemporánea (1767-1975)*. Bartzelona: Labor.

---

## Bibliografía

---

- ABANDA, G. (1990/12/2). Nekane Azurmendi: “La experiencia de la primera colonia en el monasterio de Barria es irrepitible”. *Diario Vascol*.
- AGIRRE, J. (1990). La primera colonia clandestina de las ikastolas vuelve a Barria. *EGIN/*.
- ARANTZA (1971) Udalekuak, ume heziketaren jarraipen. *Anaitasuna*.
- ALLUR, A. (1972). Ikastolak eta irakasleak. In Jakin (Eds.), *Gure Ikastola* Oñati: Jakin Sorta, 6.
- ARANBURU, X. (1990). Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Maria Dolores Goya (Groseko ikastola). *Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación/* (3).
- ARANBURU, X. (1991). Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Elbira Zipitriaren biografirako jakingaiak: Ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean. *Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación/* (4).
- ARPAL, J., ASUA, B., & DAVILA, P. (1982). *Educación y sociedad en el País Vasco*. Donostia: Txertoa.
- ARREGI, P. (1972/5/6) Kontzientziarazteaz. *Gordailuko irakasleen aldizkaria*.

- ARREGI, P. (koord.). (1992). *Euskal Alfabetatzearen azterketarako lehen urratsak. 1960-1990*. argit. gabe.
- ARREGI, R. (1971). Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu. In J. M. TORREALDAI (Eds.), *Rikardo Arregi Oñati: Jakin Sorta*, 3.
- ARRIEN, G. (1987). La ikastola Azkue, la primera en ser legalizada en Vizcaya en 1966. *Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación* (2).
- ARZELUS, A. (1985). Ira´ren omenez. In Euskerazaintza (Eds.), *Zipitria´tar Elbire Andereñoa. Omenaldia* Tolosa: Lopez Mendizabal.
- AZURTZA, M. J. (1969) Tipien-eskoletako andereñoentzat ikastaro berezia. *Zeruko Argia*.
- BASTERRA, J. (1989/12/15). Andereinoen Erresidentzia, eredu pedagogiko berri baten iturburua. *EGIN*/.
- BERRIAK (1976) Herri Gaztedia, zer?. Sakonarekin hizketan. *Berriak*, 7.
- BOTT, E. (1990). *Familia y Red Social*. Madril: Taurus.
- CAMARA, G. (1984). *Nacional-Catolicismo y Escuela. La socialización política franquista*. Hesperia.
- DAVILA, P. (1988). El “Problema Vasco” en educación: conflicto y control en la enseñanza en el País Vasco. *Control y Poder* (1).
- DAVILA, P., EIZAGIRRE, A., & FERNANDEZ, I. (1992). Elementos para la elaboración de un modelo de alfabetización vasco. In *X Congreso Nacional de Pedagogia*. Salamanca.
- E.I.B. (1933). Informe de la gestión del primer ejercicio presentado por la Junta de Gobierno del Euzko Ikastola Batza. 1932-33.
- ELORZA, A. (1978). La mujer en el nacionalismo vasco. *Tiempo de Historial* (38).
- ESCOLANO, A. (1989). Discurso pedagógico, modernización técnica y pedagogía crítica durante el franquismo. *Historia de la Educación* (8).
- FERNANDEZ, I. (1993). Emakumea, hezkuntza eta nazioa Euskal Herrian. “*Ikerkuntza, Irakaskuntza eta Feminismoa*” *Nazioarteko Kongresua*/n aurkeztutako komunikazioa. Donostia.

- FERNANDEZ, I. (1993). *Ikastolen mugimenduaren historia. 1960-1975*. Euskal Herriko Unibertsitatea: Argitaratu gabeko tesi doktoraia.
- GARATE, J. (1985). Elbira Zipitria Irastorza. In Euskerazaintza (Eds.), *Zipitria tar Elbire Andereñoa* Tolosa: Lopez Mendizabal.
- GARCIA-NIETO, M. C., VAZQUEZ, M., & VILANOVA, M. (1990). *Historia, fuente y archivo oral*. Madril: Ministerio de Cultura.
- GARMENDIA, M. C. (1972). Ikastola. In B. ESTORNES LASA (Eds.), *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. XIX. tomoa* Donostia: Auñamendi.
- GARMENDIA, M. C. (1985). *Les ikastolas en Pays Basque D'Espagne. La question du bilinguisme scolaire*. Strasburg: Argitaratu gabeko tesia.
- GORDAILU ARDURADUN TALDEA (1978) Gordailu. *Urrats, euskal pedagogia aldizkaria*.
- GURIDI, L. (1923). Euskal ikastolarik onena etxe-eskola. *Euskal Esnaleal*, 250.
- HALLAK, J. (1990). El planeamiento de la educación: algunas reflexiones retrospectivas y perspectivas. In SANTILLANA (Eds.), *Prospectiva, reformas y planificación de la educación. Documentos de un debate* Madril: Santillana.
- HARANBURU ALTUNA, L. (1971/5/6). Pedagogia askatzailea. *Gordailuko irakasleen aldizkaria*.
- IZTUETA, P. (1981). *Sociología del fenómeno contestatario del clero vasco. 1940-1975*. Zarautz: Elkar.
- IZTUETA, P. (1992). *Orixeta bere garaia*. Donostia: ETOR- Eusko Jaurlaritza.
- JAKIN (1972). *Gure Ikastola*. Oñati: Jakin Sorta, 6.
- JOUTARD, P. (1984). El tratamiento del documento oral. *Debats* (10).
- JOUTARD, P. (1986). *Esas voces que nos llegan del pasado*. Mexiko: Fondo de cultura económica.
- LABAYEN, A. M. (1971). Euskal ikastetxe eta ikastolak. *Aranzazu*.

- LANDETA, E. (1923). Proyecto de Escuela Primaria Elemental. *BSEVI* (17).
- LARRAÑAGA, P. d. (1978). *Emakume Abertzale Batza*. Auñamendi.
- LASA, J. (1971). *Euskal erria eta ikastola (una polémica en torno a la ikastola)*. Donostia: Edili.
- LEKUONA, M. (1985). Elbira Zipitria. In Euskarazaintza (Eds.), *Zipitria 'tar Elbire Andereñoa. Omenaldia* Tolosa: Lopez Mendizabal.
- LOPEZ MENDIZABAL, I. (1967). *Xabiartxo. Umiei euskeraz irakurtzen erakusteko idaztia*. Tolosa. Hirugarren argitaldia.
- MONES i PUJOL-BUSQUETS, J. (1981). *L'escola a Catalunya sota el franquisme*. Bartzelona: Rosa Sensat Edicions.
- OSA, E. (1972). *Pedagogia eta gizartea*. Donostia: Lur.
- PUELLES, M. (1980). *Educación e ideología en la España contemporánea (1767-1975)*. Bartzelona: Labor.
- SAIOKA (1978) Haurra aktibitatean hazi eta hezi egiten da (I, II, II). *Anaitasuna*.
- SEBASTIAN, L. (1991). Las organizaciones y actividades de las mujeres nacionalistas vascas durante la Guerra Civil. In *Las mujeres y la guerra civil española* Madril: Instituto de la Mujer.
- SETIEN, J. F. (1979) Gordailu eta euskal pedagogia. *Jakin*, 11.
- SIADeco (1980). *Estudio Socio-lingüístico del euskera. VII: Las Ikastolas*. argit. gabe. THOMPSON, P. (1984). La historia oral y el historiador. *Debats*(10.).
- THOMPSON, P. (1988). *La voz del pasado. La historia oral*. Valentzia: Edicions Alfons el Magnànim.
- TORREALDAI, J. J. (1982). Euskararen zapalkuntza (1936-1939). *Jakin* (24).
- TORREALDAI, J. M. (1971). Kulturgintza eta Rikardo. In J. M. TORREALDAI (Eds.), *Rikardo Arregi Oñati*: Jakin Sorta, 3.
- TORRES, I. (1971). *Umeen Deia*. Bilbo: Claret.



- UGALDE, M. (1992). Identidad femenina y nacionalismo vasco. In *ISSEIren III. Konferentzia*, Danimarka.
- UGALDE, M. (1992). El movimiento de las mujeres en la Comunidad Nacionalista Vasca hasta la guerra civil. In *I. Congreso de Historia Contemporánea*. Salamanca.
- UZEI (1979). *Ikastoletarako textuliburuak*. argit. gabe.
- VALLE, T. d. (1985). *Mujer vasca, imagen y realidad*. Bartzelona: Anthropos.
- ZALBIDE, M. (1990). Euskal eskola, asmo zahar bide berri. In *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- ZULAIKA, J. (1990). *Violencia Vasca, metáfora y sacramento*. Nerea Argitaletxea.